

ANIMALIEN BABESERAKO XI. EUSKAL JARDUNALDIAK



VITORIA-GASTEIZ

2018ko azaroak 20|21|22

'Aldabe' Gizarte Etxea (Arriagako Atea 1) | 20:00etan

Babeslea

Antolatzailea



ANIMALIEN BABESERAKO XI. EUSKAL JARDUNALDIAK oraingoan ia 'zuzeneko' eskenatoki batean datozkigu, jorratzen dugunaren gaineko legedi markoa berritze-prozesu bete-betean burutzen bait dira: **Animaliak Babesteko Lege berri bat.**

LEHEN SAIOAn Eusko Legebiltzarrari testua aurkeztu dioten bi talde politikoen ordezkariak izango ditugu. Agiri hauetatik gaurko gizarteak merezi duen zerbait egokitua atera dadila espero izatekoa da. Bi ordezkariak Gobernu Taldeari luzatutako proposamenak defendatzeko aukera edukiko dute: animalia abandonatuekiko Hilketa Zero, edota zirkuetan baso espezierik ez egotea.

BIGARREN SAIOAn, hain zuzen ere, 1993ko Legeak aurrera eraman zuen teknikari nagusiak (gaur Legebiltzarrean parlamentari) hitz egingo digu oraingo ekimena nola ikusten duen, hogeita bost urte igarota. Zein neurritan egin du aurrera euskal gizarteak ordutik hona? Zeintzu erronka administratibo dakartza testu berriak?

HIRUGARREN SAIOAk beste bi lagun dakarzkigu. Alde batetik, Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako testuetako bati ekarpenak eman dituen talde politiko baten ordezkaria. Bestalde, animalien aldeko elkarte baten ordezkaria, aipatu testuan lehen unetik parte hartu duena. Politika (legegintza) eta aktibismoa (gizartegintza) aldi berean ibili beharra duten bi eskenatoki aurkeztea da gure nahia, sinistuta bait gaude bakarrik elkarri ulertzetik egingo direla aurrerapausoak gizakion edozein esparrutan. Eta animaliekiko harremana ez da salbuespena gero.

Garai berriak bizitzen ditugu, eta eredu moral zaharretariko batzuk izugarri azkar aldatzen ari dira. Beraz, *Animalien Auzia* deritzona ezin da atzean geratu bidaia honetan. Horrexegatik jarraitzen dugu pentsatzen *Jardunaldi* hauen funtsezko ezaugarria, beste edozeinen gainetik, eremu didaktiko eta eraikitzailetik aldi berean datorrela: elkarren arteko ideien eta iritzien trukaketa, azken finean.

asteartea, azaroak 20

HAUXE DA GURE PROPOSAMENA

CARMEN LÓPEZ DE OCÁRIZ

Eusko Legebiltzarrean Talde Popularraren parlamentaria

“Talde Popularrak Euskal Legebiltzarrean berriki aurkeztutako Konpainiako Animalien aldeko Lege-proposamenak bere Zioen Adierazpenetik azpimarratu egiten du egungo gizarterik aurreratuenetan orohar animaliek —eta konpainiako animaliek modu berezian— merezi duten ongizatea, berau bermatzeko gizakiok izanik. Horrexegatik, testuak Hilketa Zero barneratzen du, honela abandonaturik dauden konpainiako animalien bizitza errespetat dadin. Halaber, gure proposamenak beste ekarpen batzuk dakartza: dendetako erakuslehioetan animaliarik ez agertzea, edota esparru publikoetan animaliak erakargarri moduan erabiltzearen debekua. Honetaz gain, ez-egitezko jarrera zigortzea du helburu. Alde 'proaktibo' batetik, gure animaliak garrai publiko gehiagotan sartu ahal izatea nahi genuke”

JOSÉ RAMÓN BECERRA

Vitoria-Gasteizko Kamaran Elkarrekin Podemos koalizioaren parlamentaria

“EQUO Berdeak (Elkarrekin Podemos koalizioaren eskutik) Eusko Legebiltzarrean sartu izanak animalientzat ongizate-maila hobetzeko aukera paregabea ireki zigun. Lehen unetik gure helburua argia izan zen: 1993ko Animalien Babesesako Legea goitik behera zaharberritzea, eta gainera talde animalisten lanari ongietorria emanez. Baita alderdi politikoaren arteko borrokatik zein Gobernu-Oposizioa dialektikatik kanpo. Gizarteak eskatzen digulako aurrera egitea akordio zabala eta bistakoak diren kontuetan. Eta lanari ekin genion”



asteazkena, azaroak 21

“25 URTE ONDOREN, ANIMALIEN BABESERAKO LEGE BERRIA BEHAR DU EUSKADIK”

LUIS JAVIER TELLERIA

Vitoria-Gasteizko Kamaran Euzko Alderdi Jeltzaleko parlamentaria, eta Gobernu Taldeko kidea legealdi honetan. 1993ko testua idatzi zuen.

“25 urte igaro dira Eusko Legebiltzarrak Animalien Babeserako Legea onetsi zuenetik. Horrexegatik, azaltzeko eta, hala badagokio, gaurkotzeko unea heldu delakoan gaude.

Kamarak eskuartean ditu oraintxe bertan zenbait egitasmo, gure nahia ahalik eta akordio zabalen lortzea delarik, bertako talde politiko guztiek beraien baietza eman dezaten. Honetaz gain, desiragarria da lege berriak irauntzeko ispirituaz jaiotzea: gaur indarrean dagoenak beste, gutxienez. Ildo horretan ibiltzen saiatuko gara, dudarik gabe.

Halaber, animalien aldeko taldeek begi onez onartu behar lukete lege berria, administrazio eskudunek (Udalak eta Aldundiak, bereziki) egiteko duten lan eskerga aitortuz, bide batez, instituzio berauekin akordioa ezinbesteko ikusten bait dugu”



osteguna, azaroak 22

LEGE BERRIA GARAI BERRIRAKO

IRATXE LOPEZ DE ABERASTURI

Vitoria-Gasteizko Udalean EH Bilduko zinegotzia

“Bestelako animaliekiko pertzepzioari dagokionez, egungo gizarteak egin duen bilakaera galanta izan dela esan beharra dago. Orain begetarianismoa, antiespezismoa, edota beganismoa filosofiak gero eta hedatuago daude. Honen ondorioz, aztarna tinkoak uzten ari dira herritarron ohituretan (kontsumo, aisia-denbora, boluntariora, militantzia). Gure esparru juridiko-politikoan (EAEn) indarrean dagoen legedia oso zaharkituta dugu, aipatu errealidadetik at delarik. Horrexegatik, eraldatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Eta lan horretan alderdi politikook, administrazioek, gizarte agenteek eta, orokorrean, herritargoak hartu behar dute parte”

MARIASUN HERAS

Animaliekiko Tratu Etikoaren Aldeko elkarte (ATEA)

“Sarritan entzun ohi da gizartea esparru politikoaren aurretik doala, eta normala da horrela izatea, nolabait. 'Gizarte Zibila' deritzonak egunerokotasuna esperientzia bizi duen bitartean, gune politikoa abiadura motelago batek eta kudeaketa-gestioak baldintzatuta dago. Beraz, [gizakiez kanpoko] animalien babesa ez da salbuespena.

Izan ere, gizarteak erraz onartu egiten ditu nolabaiteko naturaltasunez legedian agertzen ez diren kontuak. 1993ko Legearekin gertatu bazen, egun aztertzen ari denarekin berdin gertatuko da (hobeto ‘zuzendua eta handitua’)”

